

31.2. GRADUATZAILEAK

Adjektiboaren graduatzaileak «-ago», «-egi» eta «-en» dira; jarraian bakoitzaren erabileraren adibide batzuk ikusiko ditugu:

31.2.1. -Ago

- «*Etxe arratoyek esate akuen illunauek sien arek, baltzauek, bestelan arratoye gorridxaue ixaten da*» (Etxe arratoiak esaten zitzaien ilunagoak ziren haiek, beltzagoak)
- «*Bustena be laburraue deke arek*» (Buztana ere laburragoa daukate haiek)
- «*Ori burusko kontestasiñue gerua etorri san*» (Buruzko erantzun hori geroago etorri zen)
- «*Arek eukitten dau burue txikitxuaue ta sapillaue, beste egakera klase bat deko arek*» (Hark edukitzen du burua txikiagoa eta zapalagoa, beste begaera mota bat dauka hark)
- «*Bañe ori, mutikuenak sien orrek, bai bai, ori tte gero aundidxauek*» - (Baina hori, mutikoenak ziren horiek, bai bai, hori eta gero handiagoak)

baino... -ago

- «*Batzuk, e, gorritxuauek beste batzuek, baño*» (Batzuk, gorritxoagoak beste batzuk, baino)
- «*Ori, esta, katuen antzera buru txikidxauas, e, ba katu baño txikitxuaue, baño ba, katakuma desentie morukue, turoye*» - (Hori, ez da, katuaren antzera buru txikiagoagaz, ba, katua baino txikiagoa, baina ba, katakume desentea modukoa, ipurtatsa)
- «*Baye atxurras, da fásille da, eskuas arrapau itnut nik baten baño gedxatan, eskuas*» (Baina aitzurragaz, eta erraza da, eskuagaz barrapatu ditut nik baten baino gebiagotan, eskuagaz)
- «*Ori da ni baño sarraue*» (Hori da ni baño zabarragoa)
- «*Sague baño txikidxaue dana, satutxue piskat mustur gorridxas egoten da a be, e?*» - (Sagua baino txikiagoa dena, satutxoa piska bat mustur gorriagaz egoten da hura ere, e?)

askoz ... -ago

- «Ekarri dabe askos geidxa» - (Ekarri dute askoz gebiago)
- «Ori da asko be erresau» - (Hori da asko ere errazago)
- «Ori da asko be gatxaue» - (Hori da asko ere gaitzago)
- «Erosi dabe asko gutxia» - (erosi dute askoz gutxiago)
- «Zerran ebaikue baño obie da ori asko be» - (Zerra ebakikoa baino hobe da hori askoz ere)

gero ... -ago

- «Ori da gerua sarraue» - (Hori da geroago zaharrago)
- «Gerua gausa geixa da» - (Geroago gauza gebiago dago)
- «Gerua ume gutxia da» - (Geroago ume utxiago dago)
- «Etena gero gerua ta ba txarra, txarrera jueten da eta, txarrera junekero ba ari ein bi akon etena garbittu ondo, are arrixe bota» - (Etena gero geroago eta ba txarrago, txarrera joaten da eta, txarrera joanez gero ba hari egin behar zitzaion etena garbitu ondo, barebarria bota)

zenbat ... -ago

- «Semat eta andidxaue ta txarra» - (Zenbat eta bandiagoa eta txarrago)
- «Semat eta gedxa ekarri obe» - (Zenbat eta gebiago ekarri hobe)
- «Semat eta txikidxaue obe» - (Zenbat eta txikiago hobe)
- «Bakotxak, e, semat eta polittau eta ederrau ba» - (Bakoitzak, zenbat eta politago eta ederrago ba)
- «Orrek semat eta gedxa obie esaten dxuek, e, txakoliñe itteko be bai eta ardaureko be bai» - (Horiek zenbat eta gebiago hobe esaten ditek, txakolina egiteko ere bai eta ardaurako ere bai)

31.2.2. -EGI

- «Eitte san an piskat tostau a, arinyu eitte sala, astuneixe jarri estakixon umiai, ori bai» - (Egiten zen ban piska bat igertu bura, arindu egiten zela, astunegia jarri ez dakion umeari, hori bai)
- «Ekarri dabe larrei» - (Ekarri dute larregi)
- «Bero aundidxeidxe itten dau» - (Bero handiegia egiten du)
- «Ori da txikidxeidxe» (Hori da txikiagia)

31.2.3. -EN

- «Bota dabe umien artien txikidxena» (Bota dute umeen artean txikiena)
- «Ori da andreik sarrena» - (Hori da andreirik zaharrena)

- «Ori da erriko neskaik lodidxena» - (Hori da berriko neskarik lodiena)*
- «Ori da mutillik gastiena» - (Hori da mutilik gazteena)*
- «Al diren eta dotorienak» - (Abal diren eta dotoreenak)*